Nº 52

III. ZATIA. MERKATARITZAKO ZUZENBIDEA

7. IKASGAIA. MERKATARITZAKO ENPRESA ETA BERE ANTOLAKETA

7.1. Kontratazio pribatuaren erregulazioa: merkatua.

Gure gizartea merkatuko sistema ekonomikoan oinarritua dago eta honek bere eragina dauka kontratazio pribaturengan. Sistema ekonomiko honek enpresa-askatasuna eta kontratu-askatasuna izatea eskatzen du, muga batzuren barruan behintzat. Kontratu-askatasunak mugak dituen bezala (ik. 4. Ikasgaia), enpresa-askatasunak ere baditu bere mugak. Esate baterako, zenbait baliabide edo zerbitzu eremu publikoaren esku uzten dira eta bestalde interes orokorraren izenean ere mugak ezar ditzake (ad. interbentzio publikoa ahalbidetzen duten arauak; interes sozialak edo erabilera publikoak justifikatutako expropiazioa, e.a.). Baina salbuespenezko kasuak eta mugapenak kontuan izanda ere, erregela orokorra kontratu-askatasuna eta enpresa-askatasuna dira. Bi printzipio hauek gidatzen dute merkatuko sistema ekonomikoan oinarrituta dagoen gure gizartearen zuzenbide pribatua.

7.2. Merkatuan parte hartzen duten subjektuak.

Merkatuan parte hartzen duten subjektuak dira **eskaintza** eta **eskaria** egiten dutenak. Oso modu orokorrean esanda, eskaintzaren aldean enpresak dauzkagu eta eskariaren aldean, berriz, enpresak eta kontsumitzaileak aurki ditzakegu.

Kontsumitzaileak dira jarduera ekonomikotik kanpo dauden pertsona fisiko edo juridikoak. Merkatuko subjektuak dira eta lege berezi bat daukate beren babeserako. (*Ley general de defensa de los consumidores y usuarios*). Merkatuan eskaintzen diren ondasunak eta zerbitzuak eskuratzen dituzte beren behar pertsonalak edo familiarrak asetzeko, baina ez inolako jardura ekonomikorik burutzeko. Enpresarako kontsumoa izango litzatekena legearen *kontsumitzaile* kontzeptutik kanpo geratzen da.

Enpresei dagokionez, hauen titularrari *enpresari* deitzen zaio. Ikuspegi juridikotik, subjektu bat enpresari bezala hartzeko ezaugarri batzuk izan behar ditu:

- **Antolaketa**. Enpresariak jarduera bat burutzen du eta horretarako beharrezkoak diren zenbait elementu material eta pertsonal antolatzen ditu.
- **Profesionaltasuna**. Enpresariaren jarduera antolatuak jarraipena eta iraupena izan behar ditu, ohikotasuna.
- **Egozgarritasuna**. Empresaren titular denez, burututako egintzak berari egotziko zaizkio. Ondorioz, ez dira enpresariak iraupenezko jarduera profesional eta antolatu hau bere izenean burutzen ez duteneak (ad. administrtzaileak, gerentea).

7.3. Merkatuaren funtzionamendua.

Merkatuak funtzionatu ahal izateko, enpresa-askatasuna benetazkoa izan dadin, lehia egotea ezinbestekoa da: lehiarik gabe ez dago merkaturik. Baina merkatuan maiz agertzen dira lehia gutxitu edo desagertarazteko jokabideak eta portaera ez zilegiak. Merkatuan parte hartzen duten subjektuek abantaila ugari ikusten diote elkarren artean lehiarik ez egiteari (ad. merkatua banatzea, prezioak finkatzea, e.a.), lehia faltsutzeari (ad. imitazioa eginaz, dumping eginaz, e.a.) edota publizitatze desegokia egiteari (ad. engainuzkoa). Horregatik lehiari legezko babesa ematen zaio, lehia babesteko legediaren bitartez:

- *Ley de defensa de la competencia*
- *Ley de competencia desleal*
- *Ley general de publicidad*

7.4. Mertataritzako jarduera.

Merkataritzako jarduera (hobe esanda, merkatuko jarduera) burutzen duen subjektua enpresaria dela esan dugu. Enpresaria izan daiteke: pertsona fisikoa (*banakako enpresaria*, ad. 'autonomoa') edota pertsona juridikoa (*enpresari soziala*, ad. S.A., S.L., S.Coop.). Kasu batean, nahiz bestean, enpresari izateko eta merkatuan jarduteko zenbait baldintza bete behar dira: gaitasunari buruzkoak, sozietatea eratzeko formaltasunak, baimen administratiboak, zergak, legezko zenbait debeku kontuan izan, e.a.

Enpresariak jarduera ekonomikoaren arriskuak bere gain hartzen ditu. Jarduera horretan egintza ugari burutzen ditu, ondorio juridikoak eta ekonomikoak dituztenak eta bera da guzti horien erantzule unibertsala. Berak erantzungo du oraingo eta etorkizuneko bere

ondasun guztiekin (K.Z. 1911 art.), baita kontratuz kanpoko erantzukizunaren kasuan ere (K.Z. 1902 art.) eta baita bere enplegatuek beren funtzioak betetzerakoak sortutako kalteen kasuan ere (K.Z. 1903 art.). Dena den, erantzukizunari dagokionez, egoera desberdinak bereizi behar ditugu:

- Enpresari banakakoa, pertsona fisikoa, bera da erantzulea pertsonalki, bere ondasun osoarekin erantzungo du
- Enpresari soziala, kapitaleko sozietateen kasuan, sozietatea izango da erantzule, bereak diren ondasunekin (horretara mugatzen da bere erantzukizuna).

Ez dira banakako enpresaritzat hartzen nekazariak, abeltzainak, artisauak (Merk. Kod. 326. art.) eta lanbide liberalak (abokatuak, medikuak, e.a.), hauek erregimen juridiko berezia dute. Baina gero eta ohikoagoa da lanbide liberalek Merkataritzako sozietate forma duen enpresa sortzea beren jarduera burutzeko eta ondorioz merkataritzako zuzenbidea aplikagarri izatea (Ik. *Ley 2/2007, de 15 de marzo de Sociedades Profesionales*).

Enpresariak Merkataritzako Erregistroan inskribatzen dira. Inskripzio hau egitea borondatezkoa da banakako enpresariarentzako eta nahitaezkoa sozietateentzako. Honela, edozein pertsonak sozietate baten kapital-zifra, sozietatea ordezkatzen duten pertsonen identitatea, urteko kontuak, e.a. ezagutzeko modua dauka. Era honetan merkatuaren transparentzia ziurtatzen da, enpresariaren finantz egoera eta jardueraren ezaugarriak ezagutu daitezke. Erregistro hau publikoa da eta interesatuta dauden pertsona guztiek bertan inskribatutako enpresariei buruzko informazioa eska dezakete. Gainera bada inskribatutakoaren informazio laburra ematen duen Erregistroaren aldizkari bat (*BORME, Boletín Oficial del Registro Mercantil*). Merkataritzako Erregistroan inskribatzeak, publizitatearen onuraz gain, ondorio garrantzitsu bat dauka: enpresaren datuak inskribatzen dituenak, inskribatutakoa eta *BORME* Aldizkarian argitaratutakoa edozein hirugarrenari aurkagarria da nahiz eta honek ez ezagutu (M.K. 21 art.).

Azkenik esan, enpresari guztiek (banakakoek nahiz sozietateek) kontabilitatea eramateko obligazioa dutela. Bere eragiketen kontabilitatea eraman behar dute eta zehazki beharrezkoak dira *inbentario liburua*, *urteko kontuak* eta *egunkari* liburua eramatea.

7.5. Sozietate-kontratua.

Sozietatea helburuen bat burutzeko eratzen den egitura bat da. Kontratu bidez egiten da eta gehienetan egitura hori sortzen da hirugarrenekin harreman juridikoak izan ditzan (*kanporantzako sozietatea, sociedad externa*). Horregatik hartzen du pertsona izaera edo nortasun juridikoa eta deitura bat. Horren ondorioz, jarduteko gaitasuen duen subjektu bihurtzen da, eskubide eta obligazioak izateko gai.

Sozietate-kontratuak, beste kontratuek bezala hiru elementu ditu:

- Konsentimendua. Oro har, sozietatea aldeanitzeko kontratua izaten da, bi edo bazkide gehiagoren adostasuna biltzen dituena. Baina posible da ere, kasu batzuetan, bazkide bakarreko sozietatea eratzea.
- Objektua. Sozietate-kontratuaren objektu dira bazkideen ekarpenak. Ekarpena izan daiteke zerbait ematea, egitea edo ez egitea (K.Z. 1088 art), baina edozein kasutan balio ekonomikoa izan behar du.
- Kausa. Sozietatearen helburua da eta *objektu soziala* deitzen zaio.

Sozietate-kontratuak oinarrian ez du formaltasunik behar, aipaturiko elementuekin besterik ez. Baina zenbait sozietate-mota eratzeko legeak formazko baldintza bereziak eskatzen ditu: Sozietatearen estatutuak eskritura publikoan jasotzea eta Merkataritzako Erregistroan (edo Kooperatiben Erregistroan) inskribatzea.

7.6. Merkataritzako sozietateak

Sozietateek beren jatorria fundatzaileek egindako sozietate-kontratuan dute. Kontratuko alderdiek askatasuna dute sozietate-mota aukeratzeko. Behin sozietate-forma aukeratu ondoren, hari dagokion araudia aplikatuko zaio.

Oro har, merkataritzako sozietateak eratzerakoan, hauetako formaren bat aukeratuko da: sozietate kolektiboa, sozietate komanditario sinplea, sozietate komanditario akzioduna, sozietate anonimoa eta erantzukizun mugatuko sozietatea (M.K. 122 art.). Lehenengo biak sozietate pertsonalistak dira eta Merkataritzako Kodeak arautzen ditu. Besteak sozietate kapitalistak dira eta bere araudia lege berezi batetan dago: Kapitaldun

Sozietateen Legean (Ik. *Real Decreto Legislativo 1/2010, de 2 de julio, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Sociedades de Capital, LSC*), Europar Batasuneko zuzenbidearekin bat eginaz.

Sozietate kolektiboa

Mota honetako sozietate pertsonalistak bereziki egokiak dira bazkideen jarduera pertsonala eta esperientzia garrantzitsuak diren enpresa txikietarako. Bazkide gutxiko sozietate hauetan bazkideen jarduera pertsonalak, beren esperientziak eta hirugarrenen aurrean duten ospeak eta kredituak garrantzi handia dute.

Sozietate kolektiboa eratzeko gutxienez bi bazkide behar dira eta *bazkide kolektibo* deitzen zaie. Ez bada administratzaile konkreturik izendatzen, bazkide guztiek parte har dezakete administrazioan eta gestioan. Bazkideek sozietateak sortutako zorren erantzule dira subsidiarioki (sozietateak erantzun ondoren), pertsonalki, solidarioki eta modu mugagabean. Sozietatearen gestio modu hau dela eta (kolektiboa) eta erantzukizunaren intentsitatea dela eta (mugagabea), bazkidea sozietatean sartzerakoan beste bazkideen ezaugarri pertsonalak begiratzera behartuta dago. Sozietate hauetan bazkideen ezaugarri pertsonalek (akats eta birtuteek) garrantzia handia dute. Bazkideek beren artean etengabeko kontaktu pertsonala dutenez, konbibentzia erraza edo zaila bihur daiteke. Gainera, bazkide batek bere partaidetza transmititu nahiko balu, beste bazkideen adostasuna behar du.

Sozietate-mota honen deituran bazkide baten, batzuren edo guztien izenak jartzen dira. *'... eta Konpainia' (... i Cía)* expresioa gehitzen zaio, bazkide batzuren edo baten izena bakarrik jartzen bada. Bazkidea ez den beste pertsona baten izena jartzea debekatuta dago eta bazkide izateari utzi dionaren izena kendu egin behar da sozietatearen deituratik. Bazkide izan gabe, bere izena sozietatearen deituran jartzeko baimena ematen duenak, sozietatearen zorretaz bazkide batek bezala erantzungo du baina ez da bazkide bihurtuko. Posible da deitura subjektiboaren barruan objektu soziala osatzen duen jarduerari erreferentzia egitea. Sozietatearen deituran *'Sozietate Kolektiboa'* espresioa edo bere laburdura *S.K. (S.C.)* jarriko da.

Irabazien banaketari dagokionez, sozietateko eraketa-eskrituran ezer berezirik adierazten ez bada, bazkide bakoitzak egindako ekarpenen balioaren arabera izango da. Bazkide bat *industriala* denean (bere ekarpena kapitala izan ordez zerbitzua ematea denean), eskrituran besterik adierazten ez bada, partaidetza gutxien duen bazkideari ematen zaizkion irabazi berdinak emango zaizkio.

Sozietate Komanditario sinplea

Sozietate komanditario sinplea, bazkide kolektibo bat edo batzuk eta bazkide komanditario bat edo batzuk elkartzen dituen sozietate pertsonalista da. Beraz, sozietate honetan bi motako bazkideak daude:

- *Bazkide kolektiboak.* Hauei dagokie sozietatearen administrazioa eta ondorioz sozietatearen zorren erantzule dira subsidiarioki, pertsonalki, modu mugagabean eta solidarioan.
- *Bazkide komanditarioak.* Ez dute sozietatearen administrazioan eta ordezkapenean parterik hartzen eta beraz ez dute sozietatearen zorretaz pertsonalki erantzungo. Beren erantzukizuna sozietateari egindako ekarpenera mugatzen da.

Gutxienez bazkide kolektibo bat eta bazkide komanditario bat egotea beharrezkoa da. Sozietate Komanditario Sinplea sozietate pertsonalista bat da, sozietatea eratzerakoan bazkide kolektiboen baldintza pertsonalak hartzen baitira kontutan (bazkide komanditarioenek, ordea, garrantzi gutxi dute). Sozietate honek enpresa izpiritua eta merkataritzako gaitasuna duten pertsonek sustatutako negozioak hasteko balio du. Pertsona horiek ez badute kapital nahikorik, sozietatearen zorretaz erantzukizun mugatua izango duten eta enpresaren martxan ez sartzea onartuko duten bazkide kapitalistak bila ditzakete. Beraz, sozietate-mota hau ere batez ere enpresa txikitarako da aproposa. Sozietate hauetan bazkide kapitalistak sar daitezke, sozietatearen martxan parte hartuko ez dutenak, sozietatearen zorrengatiko erantzukizuna mugatua izatearen truke.

Sozietatearen deitura bazkide kolektibo guztien, batzuren edo baten izenarekin osatuko da. Azken bi kasuetan '*... eta konpainia*' hitzak erantsiko zaizkio izenari eta kasu guztietan '*Sozietate Komanditarioa*' espresioa edo bere laburdura '*S. Kom.*' ezarriko da.

Gainera, Sozietatearen deituran ezingo da bazkide komanditarioen izenik sartu. Bazkide komanditario batek bere izena erabiltzeko adostasuna emango balu, bazkide kolektibo batek bezala erantzungo luke baina ez litzateke bazkide kolektibo bihurtuko.

Sozietate Anonimoa

Sozietate Anonimoa sozietate handitarako da egokia. Kapitala, gutxienez 60.000 eurokoa, *akziotan* zatitua dago eta bazkideek ez dute sozietatearen zorren aurrean erantzunik hartzen. Eraketa momentuan kapitalak osorik harpidetuta egon behar du (akzio guztiak harpidetuak) baina nahikoa da akzio bakoitzaren balio nominalaren laurdena despoltsatuta egotea. Bazkide bakar batekin ere posible da SA eratzea.

Eraketa formaltasunak: Sozietate Anonimoa eratzeko eskritura publikoa eta hau Merkataritzako Erregistroan inskribatzea beharrezkoa da. Inskripzioak izaera eratzailea dauka, beraz inskripziorik gabe sozietate anonimoak ez du nortasun juridikorik. Inskripzioa Merkataritzako Erregistroaren Aldizkarian argitaratzen da.

Akzioen ezaugarriak:

- Akzioak kapitalaren zatiak dira eta balio nominal bat dute, kapitalaren zatia adierazten dute. Balio nominala, balio kontablearen eta merkatuko balioaren desberdina izaten da.
- Akzioak bere titularri bazkide izaera ematen dio eta, ondorioz, legeak eta estatutuek aitortutako eskubideak izango ditu. Adibidez, irabazien banaketan parte hartzeko eskubidea; akzio berrien jaulkipena egiten denean akzio berri horiek harpidetzeko lehentasun eskubidea (akziodunak lehendik zituen akzioen balio nominalaren kopuru proportzionala harpidetzeko lehentasuna izango du), e.a.
- Akzioak titulu bidez (izendunak edo eramailearenak) edo kontu-anotazioen bidez errepresentatuta egoten dira.
- Akzioak, printzipioz, libreki transmititu daitezke sozietatearen estatutuetan transmisioari mugak jartzen ez bazaizkio behintzat.
- Akzioak eskubide errealen objetu izan daitezke. Posible da, adibidez, akzioen usufruktua edo bahitura egitea.

Sozietate Anonimoaren egituran bi organu daude: batzar nagusia eta administrazio-organua. **Batzar nagusia**, bazkideen batzarra, sozietatearen jardueraz erabakitzeko egiten den bazkideen bilera, sozietatearen organu gorena da. Bertan akordioak hartzen dira batzarreratu diren akziodunen botuen gehiengoarekin, hau da, botuen erdia gehi bat. Botuak akzio-kopuruaren arabera zenbatzen dira eta ondorioz, bazkideak daukan akzio-kopuruaren araberako eragina izango du sozietatean. ***Ohiko batzar nagusia***, obligazioz egin behar da ekitaldi ekonomiko bakoitzaren lehenengo sei hilabeteren buruan eta gutxienez nahitaezko hiru gai hauek jorratu behar ditu: 1) aurreko ekitaldiko gestioaren aprobazioa, 2) aurreko ekitaldiko urteko kontuen onarpena eta 3) emaitzaren aplikazioa. Gai hauetaz gain beste edozein gai tratatu daiteke. Bestelako batzar guztiak ***ez ohikoak*** izango dira. Edozein kasutan, batzarrerako deialdia legezko baldintza batzurekin egin behar da. Merkataritzako Erregistroko Aldizkarian eta probintzian gehien irakurtzen den egunkarietako batean iragarkia jarri behar da, gutxienez, batzarraren data baino hilabete lehenago (Ik. LSC 159 art.). ***Batzar unibertsala*** egiteko, aldiz, ez da deildi formalik behar, bazkide guztiak bileran bait daude.

Administrazio-organuari dagokionez, bere egitura sozietatearen estatutuetan adieraziko da: administratzaile bakar bat, solidarioki aritzen diren zenbait administratzaile, batera aritzen diren bi administratzaile edo administrazio kontseilu bat izan daiteke. Administratzaileak, printzipioz, batzar nagusiak izendatzen ditu.

Erantzukizun Mugatuko Sozietatea

Erantzukizun Mugatuko Sozietatea (*Sociedad de responsabilidad limitada o sociedad limitada, S.L.)* enpresa txiki eta ertainetarako da egokia, baina enpresa handietarako ere aproposa izan daiteke inbertsiogileak publikoki kaptatu nahi ez diren bitartean (Ik. LSC 1 eta 4 art.).

Gutxienez 3000 euroko kapital-kopurua izan behar du. Kapitala *partizipaziotan* zatituta dago eta bazkideek ez dute sozietatearen zorren gaineko erantzukizunik. Bazkideek ezin dituzte partizipazioak libreki transmititu, horretarako legezko irizpide eta muga batzuk daude. Bazkide bakar batek eratu dezake sozietate mota hau. Partizipazio guztiak harpidetuta eta osorik despoltsatuta egon behar dute eraketa momentutik. Partizipazioak ez dira ez titulu ez kontu-anotazioen bidez errepresentatzen.

Eraketa formaltasunak: sozietatearen eraketarako eskritura publikoa Merkataritzako Erregistroan inskribatzea beharrezkoa da.

Bere organuei dagokienez, oinarrizko erregulazioa Sozietate Anonimoaren antzekoa da baina desberdintasun batzurekin. Bestalde, batzarreko akordioak bertan emandako botuen gehiengoarekin hartzen dira, baina beti ere partizipazio guztiei dagozkien botuen heren bat lortzen bada.

Erantzukizun Mugatuko Enpresa Berria

Erantzukizun mugatuko sozietate-mota berezi bat da hau (Ik. LSC 434 art.). Hemen ere kapitala partizipaziotan zatituta dago eta bazkideek ez dute sozietatearen zorretaz erantzuten. Sozietate-mota honen erregulazioarekin enpresa txikien eta ertainen sorrera eta garapena suspertu nahi izan da sozietate-formula sinple baten bidez, teknologia berriak aplikatuaz eta dokumentu-tipo edo inprimakiak erabiliaz (*Ley 7/2003, de 1 de abril, de sociedad limitada nueva empresa*), 3.000 euroko kapital minimoarekin eta 120.000 euroko gehienezko kapital-kopuruarekin. Sozietatea eratzeko tramite notarialak (eskritura publikoa) eta erregistralak teknika elektroniko eta informatikoen bitartez egin daitezke. Honela, Dokumentu Elektroniko Bakarrarekin (*Documento Único Electrónico, DUE*) posible da 48 ordutan mota honetako sozietate bat eratzea, estatutu-tipo batzuk erabiltzen badira.

Akziodun Sozietate Komanditarioa

Ez du Sozietate Komanditario sinplearekin zerikusirik eta bere erregulazioa Sozietate Anonimoaren antzekoa da. Bere kapitala akziotan zatitua dago. Akziodun bat edo batzuk administratzaileak dira eta administratzaile izateagatik bazkide kolektiboek bezalako erantzukizuna dute sozietatearen zorren aurrean.

Sozietate kooperatiboa

Kooperatibak, kapital aldagarria eta antolakuntza eta gestio demokratikoa izanik, interes amankomunak dituzten pertsonak elkartzen ditu, interes horiek asetzeko eta

komunitatearen zerbitzura, jarduera enpresarialak garatzeko. Deituran, *Sozietate Kooperatiboa* edo *'S. Koop.'* laburdura adierazten da. Kooperatiba eratzeko, eskritura publikoa egin behar da eta Kooperatiben Erregistroan inskribatu (Ik. *Registro de Cooperativas de Euskadi*).

Kapital minimoa 3.000 eurokoa da eta kopuru horrek hasieratik osorik despoltsatuta egon behar du. Kapitala bazkideek egindako ekarpenekin osatzen da. Baina ekarpen hauek ez doaz osorik kapitalera. Zati bat obligaziozko erreserbazko fondora doa. Kooperatibak badu banatu ezin duen ondare bat, zenbait fondo obligatorio eratzeko erabiltzen dena: erreserbazko fondoa eta hezkuntza eta sustapen fondoa. Kooperatibaren kapitala aldakorra da, estatutuak aldatu beharrik izan gabe, handitu edo murriztu egiten da, bazkideak sartu eta ateratzen diren araberan. Estatutuetan adierazitako gutxienezko kapitala errespetatu behar da soilik. Horregatik kooperatibak erreserbazko fondo obligatorioak eratzera behartzen ditu legeak eta kooperatibako soberakinen portzentai bat fondo horiek mantentzeko erabili behar da.

Bi motako kooperatibak daude:

- Lehen mailako kooperatibak, oro har gutxienez hiru bazkide fundatzaile dituzte eta bazkide horiek pertsona fisikoak edo juridikoak izan daitezke. Euskadin posible da *S. Koop. Txikia (S. Coop pequeña)* eratzea bi bazkiderekin *(Ley 6/2008, de 25 de junio, de la Sociedad Cooperativa Pequeña de Euskadi).*
- Bigarren mailako kooperatibak, gutxienez bi bazkide fundatzaile dituzte eta hauek kooperatibak izan behar dute (kooperatiba taldeak dira).

Bazkide izateko beharrezkoak diren baldintzak zeintzuk diren estatutuetan zehazten dira. Bazkideen erantzukizuna beren ekarpenetara mugatzen da. Bazkideek kooperatibaren irabazietan (*soberakinetan*) parte hartzeko duten eskubideari *erretornu-kooperatiboa* deitzen zaio eta ez da sozietateari egindako ekarpenen proportzionala izango, kooperatiban egindako jardueraren araberakoa baizik.

Kooperatibaren organuak dira: batzar orokorra eta kontseilu errektorea (*consejo rector*). **Batzar orokorrak** bazkideak biltzen ditu, gaiak eztabaidatu eta akordioak hartzeko. Lehenengo mailako Kooperatibatan bazkide bakoitzak botu bat izango du, bere

ekarpena edozein izanda ere. Akordioak gehiengoaren bidez hartzen dira, hau da, batzarrera joan direnen botuen erdia gehi bat (salbuespenezko zenbait kasu konkretutan ezik).

Kontseilu erréktorearen egitekoa, berriz, kooperatiba gestionatzea eta ordezkatzea da, hau da, administratzaileen ohiko egitekoa. Organu honek, gutxienez, hiru kide izango ditu. Hala ere, kooperatiban hamar bazkide baino gehiago ez badaude, administratzaile bakarra izatea posible da. Administratzaileak batzar orokorrak hautatzen ditu.